

## IKASGAIAREN IRAKASKUNTZA-GIDA

<b>Titulua:</b> ERIZAINZAKO GRADUA	<b>Mota:</b> Oinarrizko prestakuntza komuna
<b>Ikasgia:</b> Harremanak eta komunikazioa zainketetan	<b>Eskolen kronograma:</b> 1. lauhilekoa
<b>Kodea:</b> 26445	<b>Hizkuntza:</b> Euskara/Gaztelania
<b>Ikasgaiaren deskribapena eta testuingurua</b> Komunikazioa eta pertsona arteko harremana jardura profesionalaren funtsezko oinarriak dira, eta beraz, harremanetarako trebetasunak lantzea beharrezkoa izango da pazientearekin kalitateko harreman terapeutikoa izan nahi badugu.	<b>ECTS kredituak:</b> 6
<b>Sartzeko eskakizunak/gomendioak</b> Irakasgai hau ikasteko, ezinbestekoa da Zainketarako Oinarri Metodologikoetan matrikulatuta egotea.	<b>Kurtsoa:</b> 2. maila

### IRAKASLEAK

### Tel.

### Helbide elektronikoa

Irakasgaiaren arduraduna:	Tel.	Helbide elektronikoa
Shaila Herrero Díaz	945 218088	shaila_herrero002ehu.eus
<b>Euskarazko lerroko irakasleak:</b> Shaila Herrero Díaz		shaila_herrero002ehu.eus

## GAITASUN ESPEZIFIKOAK

- G1. Oro har pertsonen arteko harremanetan eta erizain-paziente-familia-talde erlazioan eragiten duten komunikazio prozesua eta faktoreak interpretatzea.
- G2. Harremanetarako eta komunikaziorako norberaren trebetasunak ebaluatzea, hobekuntza arloak eta aldaketa proposamenak zehaztuz.
- G3. Egoera kliniko simulatuetara egokitutako komunikazio eraginkorrak egitea harreman terapeutikoaren barnean.

## IKASKUNTZAREN EMAITZAK

- IE1. Komunikazioan eragiten duten faktoreak deskribatzen eta antzematen ditu.
- IE2. Harreman profesionala eta harreman soziala bereizten ditu, harreman profesionaleko estilo desberdinak identifikatzen dituelarik.
- IE3. Komunikazio prozesuan agertzen diren erresistentzia propio zein besteenak antzeman eta aldaketak proposatzen ditu.
- IE4. Erizain balorazio-elkarrizketaren barnean komunikazio eraginkorrak ezartzen ditu.
- IE5: Errespetuan eta asertibitatean oinarritzen diren interakzio pertsonalak ezartzen ditu.

## EDUKIAK

### I UNITATEA: KOMUNIKAZIOARI BURUZKO OINARRIZKO KONTZEPTUAK

- 1.1 Komunikazio-prozesuan eragiten duten elementuak eta faktoreak
- 1.2 Behatzea eta entzutea komunikazioan
- 1.3 Pertsona arteko komunikazio-estiloak
- 1.4 Erresistentziak eta oztopoak komunikazio-prozesuan

*Mintegia: Ahozko komunikazioa eta ez-ahozko komunikazioa. Pertsonen arteko harreman estiloak.*

### II. UNITATEA: HARREMAN PROFESIONALA ZAINKETA INTEGRALAREN OINARRI.

#### HARREMAN PROFESIONALA ETA GIZA-HARREMANA

- 2.1 Harreman profesional estiloak
- 2.2 Erizaintzako profesionalen jarrerak harremanean (enpatia, benetakotasuna, onarpena eta errespetua)
- 2.3 Harreman terapeutikoa

*Mintegia:*

- Laguntza-harremanetik erantzunak eraikitzen
- Profesionalen harreman estiloak

### III. UNITATEA: ELKARRIZKETA, ERIZAINZAREN TOPAGUNE ETA ESKU-HARTZE MODUAN

- 3.1 Elkarrizketa-motak
- 3.2 Balorazio-elkarrizketaren faseak: harrera, miaketa, ebazpena
- 3.3 Tresna erabilgarri batzuk elkarrizketarako
- 3.4 Informazioa biltzea eta erregistratzea

*Mintegia:* Balorazio elkarrizketa

GAI UNITATEA	IRAKASLEAK	ESKOLA MAGISTRALEN ORDUAK	MINTEGI-ORDUAK	TAILER-ORDUAK
I, II, III	Shaila Herrero Díaz	40	20	0
GUZTIRA		<b>40</b>	<b>20</b>	<b>0</b>

## METODOLOGIA

Azalpen bidezko eta parte hartzeko metodoak erabiliko dira, dokumentu desberdinak irakurriko dira eta ikus-entzuteko materialari buruzko azterketa eta gogoeta egingo da. Binaka edo taldeka egindako simulazioa izango da trebetasun praktiko desberdinetan entrenatzeko erabilitako metodologia. Banaka eta taldeka ariketa ezberdinak egingo dira, eta ahozko zein idatzizko azalpenen bidez ebaluatuko dira.

Ikasgai honetan, askotariko irakaskuntza-metodologiak erabiltzen dira, esaterako:

- Klase magistralak
- Jarduera kooperatiboak
- Mintegiak

LAN PRESENTZIALA ( 60 ORDU)		
Klase magistrala	Mintegia	Laborategiko praktikak / Tailerra
40	20	0

LAN EZ-PRESENTZIALA (90 ORDU)		
Gidatutako lana	Bakarkako lana	Talde-lana
6	74	10

GUZTIRA	
ECTS	6
ORDUAK	150

## EBALUAZIO-SISTEMA

### OHIKO DEIALDIA: EBALUAZIO JARRAITUKO SISTEMA

Irakasgai honetan ebaluazio jarraituaren sistema erabiltzen da lehentasunez. Beraz, gaitasun guztiak landu direla ziurtatzeko ebaluazio-jardueren multzo bat ezartzen da; horrek ikasle bakoitzak prestakuntza-aldian izan duen bilakaera baloratzea ahalbidetzen du.

Ebaluazio jarraituko sistemak honako jarduera hauek ditu:

- Praktikak (arriketak, kasuak edo buruketak) % 20
- Banakako lanak % 40
- Lanen aurkezpena % 40

Taula honetan laburbiltzen da gaitasunen, ikaskuntzaren emaitzen, jardueren eta ebaluazio-sistemaren arteko erlazioa:

GAITASUNAK	IKASKUNTZAREN EMAITZAK	JARDUERA	EBALUAZIOA	AZKEN KALIFIKAZIOAREN %
G1	IE1, IE2	Klase magistralak Ariketak eta kasuak	- Ikus-entzute materiala aztertzea - Aurkezpena	% 20
G2	IE1, IE2, IE3, IE5,	Klase magistralak Jarduera kooperatiboak Mintegiak	- Idatzizko lana - Aurkezpena	% 40
G3	IE2, IE4, IE5	Klase magistralak Mintegiak	- Simulazioa - Erregistroa	% 40

Hala ere, ikasleek eskubidea izango dute azken ebaluazioko sistema bidezko ebaluazioa izateko, ebaluazio jarraituko sisteman parte hartu edo ez.

Bi kasuetan beharrezkoa da proba ebaluagarri bakoitzaren guztizkoarekin % 50 gutxienez lortzea irakasgaia gainditzeko.

Parte-hartzean oinarritutako ikasgaia denez, ebaluazio jarraitua egingo da. Horrek esan nahi du, bada, eskoletara joatea ezinbestekoa dela. Noizbehinka edo ustekabean eskoletara joaterik ez badu, ikasleak irakasleari jakinarazi beharko dio, irakasleak ebaluazio jarraituko irizpideak beste egoera horretara egokitu ditzan.

Kalifikazioa guztira gainditzeko, ezinbestekoa da gaitasunak ebaluatzeko erabilitako proba bakoitzaren guztizkoaren % 50 gutxienez lortzea.

Ebaluazio jarraituko zeregin puntuagarri ezberdinak egiteko eta entregatzeko datak irakasgaia hastean zehaztuko dira, eta ikasleen eskura izango dira plataforma birtualean.

Lehenengo deialdian behar bezalako gaitasun-garapena lortu ez duten ikasleek beste aukera bat izango dute, bigarren deialdian, gainditu gabeko horietan duten maila erakusteko, gainditutako proben kalifikazioak ikasturtea amaitu arte erreserbatuta geratuko direlarik.

### **EBALUAZIO JARRAITUARI UKO EGITEA**

Ebaluazio jarraituko sisteman parte hartu duten eta azken ebaluazioko sistemaren bidez ebaluatuak izan nahi duten ikasleek idatziz adierazi beharko diote ikasgaiaren irakasle arduradunari ebaluazio jarraituari uko egiten diotela. Horretarako, 9 asteko epea izango dute ikasgaiaren hasieratik zenbatzen hasita, zentroko egutegi akademikoaren arabera, 2017ko martxoaren 13ko EHAAn argitaratutako ebaluazio-sistemaren 8. artikuluan jasotakoari jarraikiz.

Azterketara ez aurkezteak «Ez aurkeztua» kalifikazioa ekarriko du.

### **OHIKO DEIALDIA: AZKEN EBALUAZIOKO SISTEMA**

Azken ebaluazioa ebaluazio jarraituaren salbuespena da ebaluazio jarraitua egin ezin duten ikasleentzat: Justifikatutako arrazoiak direla-eta ebaluazio jarraituko sisteman parte hartu ezin duten ikasleek amaierako proba bakarra eskatu ahalko dute, zeinak ikasgaiaren notaren % 100 balioko duen. Hauek dira justifikatutako arrazoi horiek dira: lan-arrazoiak, genero indarkeriaren biktimak, erditzea, adopzioa, harrera edo 3 urtetik beherako seme-alabak norbere ardurapean izatea, mendekotasuna duen senidea zaintzea, ikasleak % 33ko ezintasuna edo handiagoa izatea, goi-mailako kirolaria izatea, bidaiatzea edo dedikazio handia eskatzen duten jarduera artistikoetan/kulturaletan aritzea, beste goi-mailako ikasketa batzuekin bateratzea, kargu politikoekin bateratzea, jarduera sindikalak izatea, ikasleen ordezkartzan aritzea, GKEak edo beste batzuk.

Azken ebaluazioko sisteman, ikasleek ebaluazio-jarduera hauen bidez frogatu beharko dute zer gaitasun lortu duten:

- *IDATZIZKO AZTERKETA % 60*
- *PRAKTIKAK EGITEA % 40*

Taula honetan laburbiltzen da gaitasunen, ikaskuntzaren emaitzen, jardueren eta ebaluazio-sistemaren arteko erlazioa:

GAITASUNAK	IKASKUNTZAREN EMAITZAK	JARDUERA	EBALUAZIOA	%KALIFIKAZIO GLOBALA
G1, G2	IE1, IE2, IE3, IE5,	Amaierako proba	Idatzizko azterketa: galdera laburrak / testa / kasu bat ebaztea	%60
G3	IE2, IE4, IE5	Laborategiko praktikak /	Simulazioa	%40

Ebaluazio-sistema honetan parte hartzeko, ikasle bakoitzak ebaluazio jarraituko sistemari uko egiten diola adierazteko idazki bat aurkeztuko dio irakasgaiaren irakasle arduradunari, 2022-2023 ikasturteko irakasgaiari dagokion seihilekoaren 9. astea baino lehen.

Azken azterketara edo probetara ez aurkezteak «Ez aurkeztua» kalifikazioa ekarriko du ikasgaiari.

### **EZOHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKOA**

Ohiko deialdian irakasgaia gainditzen ez duten ikasleek, aukeratu duten ebaluazio-sistema edozein dela ere, eskubidea izango dute ezohiko deialdiaren azken ebaluazioko proba osatzen duten azterketetara eta ebaluazio-jardueretara aurkezteko.

Halakoetan, jarduteko hainbat aukera daude:

1. Ezohiko deialdian, irakasgaiaren ebaluazioa azken ebaluazioko sistemaren bidez soilik egingo da.
2. Ezohiko deialdiaren azken ebaluazioko probak barne hartuko ditu zehaztutako ikaskuntzaren emaitzak ebaluatu eta neurtzeko behar diren azterketa eta ebaluazio-jarduera guztiak, ohiko deialdian ebaluatu ziren modu berean. Ikasturtean zehar ikasleek lortutako emaitza positiboak gorde ahalko dira. Ikasturtean zehar egindako ebaluazio jarraituaren bidez emaitza negatiboak lortu badira, emaitza horiek ezingo dira gorde ezohiko deialdirako, eta ezohiko deialdiko azterketak edo probak kalifikazioaren %100 balioko du.
3. Ohiko deialdian zehaztutakoa ezohiko deialdian ere beteko da. Ohiko deialdian gainditu diren gaitasunen nota gordeko da.

Ezohiko deialdiaren azken azterketara edo probetara ez aurkezteak «Ez aurkeztua» kalifikazioa ekarriko du ikasgaiari.

## INFORMAZIO-ITURRIAK

### Oinarrizko bibliografia:

- \* Cibanal L. Técnicas de Comunicación y Relación de Ayuda en Ciencias de la Salud. 2 ed. Madril: Elsevier; 2010.
- \* Ruiz Moral R. Comunicación clínica. Principios y habilidades para la práctica. Madril: Editorial Médica Panamericana; 2014.
- \* Clèries X. La comunicación: una competencia esencial para los profesionales de la salud. Bartzelona: Masson – Elsevier; 2006.
- \* Clèries X. El paciente tiene la palabra. La comunicación con los profesionales de la salud. Bartzelona: Viguera Editores; 2009.
- \* Zupiria X. Osasun-profesionalaren eta gaixoaren arteko harremana. Bilbo: UPV/EHUko argitalpen zerbitzua; 2000. Eskuragarri: <http://www.ehu.eus/xabier.zupiria/liburuak/harremana.htm>

### Sakontzeko bibliografia:

- \* Davis F. La comunicación no verbal. 3ª Ed. Madril: Alianza editorial; 2011
- \* Nieto J, Esteban M, Tejerina M. Psicología para ciencias de la salud: estudio del comportamiento humano ante la enfermedad. Madril: McGraw-Hill Interamericana; 2004.
- \* Novel G, Lluch M<sup>a</sup> T, Miguel MD. Enfermería Psicosocial y Salud Mental. Bartzelona: Masson; 2005.
- \* Tazón P, García J, Aseguinolaza L. Relación y Comunicación. Enfermería S XXI. 2 ed. Madril: Ediciones DAE; 2009.

### Beste baliabide batzuk:

#### Jardunbide kliniko egokien gida

- \* *Harreman terapeutikoaren ezarpena*

#### Helbide elektronikoko interesgarriak

- \* Bibliopsiquis. Revistas de psiquiatría – VOL (<https://psiquiatria.com/bibliopsiquis/>)
- \* Asociación Española de Enfermería de Salud Mental (<https://www.aeesme.org/>)
- \* <http://www.psi.uba.ar/investigaciones/revistas/investigaciones/indice/indice.php>

#### Ikasgaiekin lotutako aldizkariak:

- \* Atención Primaria (<https://www.elsevier.es/es-revista-atencion-primaria-27>)
- \* Enfermería Clínica (<https://www.elsevier.es/es-revista-enfermeria-clinica-35>)
- \* Gaceta Sanitaria (<https://www.gacetasanitaria.org/>)
- \* International Journal of Mental Health Nursing (<https://onlinelibrary.wiley.com/journal/14470349>)
- \* Issues in Mental Health Nursing (<https://www.tandfonline.com/journals/imhn20>)
- \* Journal of Family Nursing (<https://journals.sagepub.com/home/jfn>)
- \* Journal of Psychosocial Nursing and Mental Health Services (<https://journals.healio.com/journal/jpn>)
- \* Revista CuidArte (<http://www.revistas.unam.mx/index.php/cuidarte>)
- \* Revista Latino-Americana de Enfermagem (<http://rlae.eerp.usp.br/>)
- \* Revista ROL de Enfermería (<https://e-rol.es/>)

Film interesgarriak:

- El Doctor

## OHARRAK

2018ko maiatzaren 24ko UPV/EHUko Graduko Batzordeko akordioaren arabera, irakasgai hori gainditzeko aurrebaldintza da 4. Ikasturteko Praktikumetan matrikulatzeko.

## TUTORETZAK

Irakasgai irakasleekin tutoretza-saioak eskatzeko mezu elektronikoa bat bidali behar zaio irakasgaiaren arduradunari [shaila\\_herrero002@ehu.eus](mailto:shaila_herrero002@ehu.eus) Edonola ere, tutoretzak 3-4 ikasleko taldeetan eskatzen saiatuko dira ikasleak. Tutoretza-saioen xedea ez da huts egindako bertaratze eskola ordezkatzea.